

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.**

**LEHEN FASEAN (Proba Profesional Teorikoa), DATORREN LARUNBATEAN, 2020KO MARTXOAK 14, HARTUKO DIREN KORONAVIRUSEK (SARS-CoV-2) ERAGINDAKO INFEKZIOA PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO NEURRIAK DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEAREN LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIAREN BARRUAN.**

Ohar honen bidez, jakinarazten dizuegu gaur, 2020ko martxoaren 12an, **goian aipatutako deialdiaren Lehen Fasea (Proba Profesional Teorikoa) egiteko deialdia mantentzen dela. Proba datorren larunbatean, martxoak 14, 9:30ean izango da**, Ignacio M<sup>a</sup> Barriola Ikastegian (EHUko Gelategia, Elhuyar plaza, 1 – 20018 Donostia)

Hori guztia, neurriei eta antolakuntzari dagokienean deialdiaren ezaugarriak baloratu ondoren, bai eta erakundeek ezarritako neurriekin bateragarriak diren ere.

Era berean, jakinarazten dizuegu proba ez dela egingo edukiera handiko gune bakar batean, baizik eta edukiera txikiagoko hainbat gelatan, eta, aldi berean, plaza huts bat egongo dela hautagaien artean.

Deitutako pertsonak eta probaren antolatzaileek, ikasgelara sartu aurretik, eta proba egiten den bitartean, zorrotz bete beharko dituzte koronabirusak (SARS-CoV — 2) eragindako infekzioetatik babesteko neurri orokorrak. Hona hemen neurri horiek:

- 1. Eskuak behar bezala garbitu azterketa gelara sartu aurretik.**
- 2. Estali ahoa besaurrearekin eta/edo erabili eta botatzeko zapiarekin eztula edo doministikua egin behar izanez gero.**
- 3. Erabili eta botatzeko zapiak erabili eta zakarrontzira bota.**
- 4. Probetan parte hartzen duten gainerako pertsonetikiko zuhurtziazko distantzia utzi, bai geletara sartzean, bai pertsona guztien nortasuna egiaztatzean, bai probetan zehar, eta probak amaitu eta materiala entregatu arte.**

Probak behar bezala egin daitezten eta osasun agintariek argitaratutako prebentzio aholkuak bete daitezten, parte hartzen duten pertsona guztiei eskatzen diegu koordinatzaileek eta arduradunek ematen dizkieten jarraibideak bete ditzatela, bai sarbideetan, bai probak egiten diren bitartean.

Azkenik, jakinarazten dizuegu **eraikinerako eta geletarako sarbideak 9:15ean irekiko direla gutxi gorabehera**, pertsonak geletara modu ordenatuan sartu ahal izateko, lehen adierazitako aginduak betez.

**Beste neurri batzuk hartu behar izanez gero, puntualki jakinaraziko dira deialdi honen berri emateko bitarteko ofizialetan**; beraz, deialdia jaso duten pertsonak bitarteko horiek kontsulta ditzaten eskatzen da, proba egin arte:

- Web orria: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/personalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)
- Barne sustapenaren txandaren kasuan, [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) orrian (langileen atarian, Barne Deialdiaren atalean).

Stua.: Hautaketa Batzordea  
Donostia, 2020ko martxoak 12